

Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua: Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, aho batez Bozeramaileen Batzordeak:

“2022ko otsailaren 27an, Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa sortu zeneko berrogeita seigarren urteurrena ospatuko du Saharako herriak. 46 urte dira Mendebaldeko Sahara okupatu zutela eta Saharako herriaren borroka hasi zela. Hala ere, egoera ez da konpondu oraindik, eta giza eskubideak urratu egiten zaizkie hala lurralde okupatuetan bizi direnei nola Tindufeko errefuxiatu-kanpamenduetan bizi direnei, Marokoren okupaziopean edo babes-kanpamenduetan bizitzera behartuta daude eta.

Duela ia bi urte eta erdi, NBEko idazkari nagusiaren mandatari pertsonalak dimisioa eman zuen, eta, 2021eko azaroaren leian, Staffan de Mistura italo-suitzar diplomatikoa izendatu zuten mandatari pertsonal. 2022ko urtarrilean, Staffan de Mistura eskualdean barrena ibili da, Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko bake-prozesua suspertzeko asmoz.

Babesten ditugu Marokoko Erresumak eta Fronte Polisarioak, hau da, Mendebaldeko Saharan 1975az geroztik dagoen gatazkaren bi alderdiek berriz ere negoziatzeko De Mistura jaunak egin dituen ahaleginak. Tamalez, ezin izan dut bisitatu lurralde ez-autonoma, Marokoko Erresumak okupatua. Hain zuzen ere, lurralde hori guztiz blokeatuta dago 2015etik, eta ezin da han ikuskaritza

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 22 de febrero de 2022, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

“El próximo 27 de febrero de 2022 el pueblo saharauí conmemorará el cuadragésimo sexto aniversario de la creación de la República Árabe Saharaui Democrática. Tras 46 años de ocupación del Sáhara Occidental y lucha del pueblo saharauí, la situación sigue sin solucionarse y, tanto la población residente en los territorios ocupados como quienes viven en los campamentos de personas refugiadas de Tinduf, ven vulnerados sus derechos humanos, siendo obligadas a vivir bajo la ocupación marroquí o en campamentos de refugio.

Tras casi dos años y medio desde la dimisión del anterior Enviado Personal del Secretario General de la ONU, se designó al diplomático italo-sueco Staffan de Mistura, el 1 de noviembre de 2021, como su nuevo Enviado Personal. El Sr. de Mistura ha iniciado durante enero de 2022 una gira por la región en un intento de resucitar el proceso de paz entre el Frente Polisario y Marruecos.

Apoyamos sus esfuerzos para reanudar las negociaciones entre el Reino de Marruecos y el Frente Polisario, las dos partes del conflicto del Sáhara Occidental que dura desde 1975, pero lamentamos profundamente que el Sr. De Mistura no haya podido visitar el Territorio No Autónomo ocupado por el Reino de Marruecos, por estar completamente bloqueado a cualquier inspección independiente desde 2015, incluso



independenterik egin, ezta NBEko Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoak ere.

Jakina da Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan sahararren giza eskubideak zaintzea ez dela oraindik MINURSO Mendebaldeko Saharako Erreferendumerako Nazio Batuen Misioaren ardura. Gainera, su-etenaren akordioa amaitu denez, guztiz kezagarria da sahararrek Marokoren okupazioaren pean bizi duten egoera, hura gogortu egin da eta.

Izan ere, Mendebaldeko Saharan giza eskubideen urraketak ez du etenik izan 1975etik. Baina 2020ko azaroaren 13tik aurrera, 29 urtez indarrean egon zen su-etena bertan behera geratu ondoren, Marokoren okupazio-indarrek areagotu egin dute hango presentzia militar eta paramilitarra. Horren ondorioz, ugaritu egin dira sahararren oinarriko eskubideen urraketak, eta izugarri okertu da haien egoera. Bizilekuak bortxatu egiten dituzte, eta bertako biztanleak atzitzen, mehatxatzen, atxilotzen eta torturatzen. Zenbait auzo, oso-osorik, benetako ghetto bihurtu dira, eta Marokoko indarren etengabeko zaintzapean daude. Haien helburu nagusia giza eskubideen defendatzaileak eta okupazio-indarren aurkako disidentzia-ahotsak izan dira, zergatik eta haien herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubide legitimoa, Nazio Batuek aitortua, defendatzeagatik.

Bestalde, Europar Batasunak eta Marokok arrantzarako duten akordioari dagokionez, Europako Justizia Auzitegiaren epaia funtsezko aurrerapausoa izan zen. Epaia horrek zioen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ez eta, oro har, NBEk ere, ez dutela onartzen Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna. Oso une konplexua da hau: arrisku larrian dago EBrentzat estrategikoa den eskualde baten egonkortasuna; Saharako herriaren eta Fronte Polisarioaren pazientzia ahuldu nahi dute, eta egitate burutuen politika ezarri, hori Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiaren aurka badoa ere.

para la Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos de la ONU.

Es sabido que en los territorios ocupados del Sáhara Occidental sigue sin ser responsabilidad de la Misión de Naciones Unidas para el Referéndum en el Sáhara Occidental la vigilancia de los derechos humanos de la población saharauí. Además, ante el fin del acuerdo de alto el fuego, la situación que viven los saharauís bajo la ocupación marroquí es sumamente preocupante por su endurecimiento.

En efecto, la violación de los derechos humanos en el Sáhara Occidental ocupado no ha cesado desde 1975. Pero a partir de la ruptura al cese el fuego el 13 de noviembre de 2020, que había estado vigente durante 29 años, las fuerzas de ocupación marroquíes han aumentado su presencia militar y paramilitar incrementando las violaciones de los derechos fundamentales de la ciudadanía saharauí, con un dramático deterioro de su situación. Los domicilios son allanados y sus habitantes arrestados, amenazados, detenidos y torturados. Barrios enteros han sido convertidos en auténticos guetos bajo constante vigilancia de las fuerzas marroquíes, siendo su principal objetivo las defensoras y los defensores de los derechos humanos y las voces de disidencia contra las fuerzas de ocupación. Todo ello por defender los legítimos derechos de su pueblo a la autodeterminación e independencia, reconocidos por las Naciones Unidas.

Asimismo, respecto al acuerdo entre la Unión Europea y Marruecos en materia de pesca, fue un avance esencial la sentencia del Tribunal Europeo de Justicia, que manifestó que “la soberanía del Reino de Marruecos sobre el Sáhara Occidental no está reconocida ni por la Unión Europea ni por sus Estados miembros ni, de manera más general, por la ONU”. Asistimos a un momento muy complejo que amenaza seriamente la estabilidad en una región estratégica para la UE y pretende socavar la paciencia del Pueblo saharauí y del Frente Polisario e imponer una política de hechos consumados, que contradicen la sentencia del Tribunal de Justicia de la Unión



Europea.

Gaur hasiko den zikloan, gertaera horiek ezin dira zigorrik gabe utzi, nazioarteko zuzenbidearen urraketan aurrean ezer ez eginda eta potentzia okupatzailearekin lankidetzara politiko eta ekonomikoan jardunda. Administrazio inplikatuak gatazkan duten erantzukizunari aurre egiteko eskatu behar zaie.

Hoy se abre un ciclo en el que la inacción ante las violaciones del derecho internacional y la colaboración política y económica con la potencia ocupante, no puede dejarlas impunes. Es el momento de exigir a las administraciones implicadas que hagan frente a sus responsabilidades en el conflicto.

Hori dela eta, sinatzen duten taldeek erakunde-adierazpen hau aurkezten dute:

Es por ello que los grupos firmantes presentan la siguiente Declaración Institucional:

1. Donostiako Udalak adierazten du Mendebaldeko Sahara lurralde ez-autonomo bat dela, nazioarteko zuzenbidearen mende dagoena eta Marokoko Erresumaren parte inoiz izan ez dena. Horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa amaitzeko eta Saharako herriari autodeterminazio-eskubidea erabiltzen uzteko eskatzen dugu.

1. El Ayuntamiento de San Sebastián, constata que el Sáhara Occidental es un Territorio No Autónomo, sometido al Derecho Internacional, que nunca ha pertenecido al Reino de Marruecos y por ello le exigimos que cese la ocupación ilegal del Sáhara Occidental y permitir el ejercicio del derecho del Pueblo saharaui a la autodeterminación.

2. Donostiako Udalak exijitzen du Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideak zorrotz errespetatzea eta bertan behera uztea sahararrek jasaten dituzten eskubide-urraketak.

2. El Ayuntamiento de San Sebastián exige el respeto escrupuloso de los derechos humanos en los territorios ocupados del Sahara Occidental y el cese de las violaciones de derechos que sufren los saharauis.

3. Donostiako Udalak salatu egiten du Mendebaldeko Saharan gertatzen ari den espoliazioa, Marokoko Gobernua baliabide naturalak ebasten ari baita, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako epaiak gorabehera.

3. El Ayuntamiento de San Sebastián denuncia el expolio de los recursos naturales, a pesar de las sentencias del Tribunal de Justicia de la Unión Europea, en el Sáhara Occidental por el Gobierno de Marruecos.

4. Donostiako Udalak hertsatuki eskatzen die Nazio Batuei luzamendu gehiagorik gabe susta dezatela Mendebaldeko Saharako gatazka amaitzeko konponbide bidezko eta behin betiko bat. Konponbide hori erdiesteko, nahitaez utzi behar zaio Saharako herriari autodeterminazio-eskubidea erreferendum bidez baliatzen.

4. El Ayuntamiento de San Sebastián insta a Naciones Unidas a que promueva sin más dilación la solución justa y definitiva del conflicto del Sáhara Occidental, solución que pasa por llevar a la práctica el derecho de autodeterminación del pueblo saharaui mediante la celebración del referéndum.

5. Donostiako Udalak kezka adierazten du Saharako errefuxiatu-kanpalekuetan dagoen egoera humanitario larriaren aurrean eta euskal erakunde publikoei eskatzen die jarrai

5. El Ayuntamiento de San Sebastián muestra su preocupación por la grave situación humanitaria existente en los campamentos de refugiados saharauis y pide a las instituciones



dezatela laguntza solidarioa eta humanitarioa ematen, bai Tindufeko kanpamenduetako errefuxiatuentzat, bai lurralde okupatuetako sahararrentzat.

6. Donostiako Udalak esker ona adierazi nahi die saharar herriaren adiskidetasunaren alde egunero elkartasunean eta gizartean lan egiten duten elkarte eta talde solidarioei, haien helburu bakarra saharar herri senidearentzat etorkizun aske bat lortzea baita. Aldi berean, Oporrak Bakean haurren harrera-programan parte hartzen duten Donostiako familien funtsezko garrantzia aitortzen du".
=====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko martxoaren 2an.

públicas vascas a continuar e incrementar el apoyo solidario y humanitario tanto a la población refugiada en los campamentos de Tinduf como a las y los habitantes saharauis de los territorios ocupados.

6. El Ayuntamiento de San Sebastián quiere expresar su agradecimiento a aquellas asociaciones y grupos solidarios que trabajan día a día de forma solidaria, en la sociedad, en favor de la amistad con el pueblo saharauí, y cuyo único objetivo es lograr un futuro libre para el pueblo hermano saharauí. Al mismo tiempo, reconoce la importancia fundamental de las familias donostiarras que participan en el programa de acogida de niños y niñas "Vacaciones en Paz".
=====

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 2 de marzo de 2022.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL

Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA

ALKATEAK O. E. -
V. ° B. ° DEL ALCALDE: